



**EBAZPENA, 2022KO AZAROAREN 15EKOA, JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARIARENA,  
EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO JUSTIZIA ADMINISTRAZIOAREN ZERBITZURA DAUDEN  
FUNTZIONARIOENTZAKO EUSKARA-IKASTAROETARAKO DEIALDIA EGITEN DUENA.**  
**2022/2023 IKASTURTEA OTSAILA-EKAINA**  
**(DEIALDI OSAGARRIA)**

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saileko Justizia Administrazioiko Zuzendaritzak, Euskal Autonomia Erkidegoan lan egiten duten Justizia Administrazioiko funtzionarioen euskarazko hizkuntza-gaitasuna sustatzeko eta bultzatzeko xedez, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioiko Hizkuntza Normalizazioari buruzko ekainaren 29ko 174/2010 Dekretuan ezarritakoarekin bat etorritz, hizkuntza-gaikuntzako ikastaroak deitu ditu 2022/2023 ikasturteko bigarren lauhilekorako.

Horregatik,

EBAZTEN DUT

Artikulu bakarra. – Onartzea Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioaren zerbitzura dauden funtzionarioei zuzendutako euskara-ikastaroen Deialdi Osagarria, 2022/2023 ikasturtearen bigarren lauhilekorako, ebazpen honen I. eranskinean jasotako oinarrietan ezarritakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko azaroaren 15a

Jon Arturo Uriarte Unzu

JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARIA



## I.ERANSKINA

### OINARRIAK

#### **Lehena. - Xedea**

Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioaren zerbitzura diharduten funtzionarioen kidegoetako langileen euskarazko hizkuntza-gaitasuna sustatzea eta bultzatzea.

#### **Bigarrena. - 2022-2023 ikasturterako deialdiak**

Justizia Administrazioako Zuzendaritzak bi deialdi argitaratuko ditu 2022-2023 ikasturterako. Deialdi Orokorra 2022ko maiatzaren 11n argiratu zen, honako ebazpen honek eta baita Deialdi Orokorrerako deia egin zuen ebazpenak ere 2022-2023 ikasturteko deialdi osagarria arautzen dute.

Ikastaroen eskaintza Deialdi Osagarrian mugatua da, baina lan-ordutegira zein lanaz kanpoko ordutegira hedatzen da. Autoikaskuntza eta C2 ikastaroerik dagokienez, honako deialdi honek ez du eskaintza hori jasotzen 2022-2023 ikasturtearen bigarren lauhilerako.

Deialdi Osagarria Justizia Administrazioako Zuzendaritzaren aurrekontu-erabilgarritasunaren mende egongo da.

#### **Hirugarrena. – Deialdi honen hartzaileak**

1. Deialdi honetan parte hartu ahal izango dute Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioaren zerbitzura diharduten kidegoetako funtzionarioak.

Bitarteko funtzionarioek deialdi honetan parte hartu ahal izango dute, baldin eta izendapenaren iraupena eskatutako euskara-ikastaroaren iraupenaren berdina edo luzeagoa bada.

Era berean, lanaldiaren laurdenetik gorako murrizketa duten funtzionarioek lanalditik kanpoko ordutegian soilik eskatu ahal izango dituzte euskara-ikastaroak.

2. Ez zaie euskara ikasteko lizentzia berririk emango Prozesu eta Administrazio Izapidetzako Kidegoko eta Laguntza Judizialeko Kidegoko funtzionarioei, C1 maila (egiaztatua ala ez) lortu

badute. Salbuespen gisa, lanorduetatik kanpo euskara ikasteko azken lizentzia eman ahal izango zaie kidego horietako langileei, baldin eta C1 maila lortu badute baina egiaztatu ez badute.

Era berean, C1 duten Auzitegiko Medikuen eta Prozesu eta Administrazio Kudeaketaren kidegoetako langileei C2 maila (egiaztatu ala ez) lortu arteko baimena emango zaie. Salbuespen gisa, C2 maila (4. HE) lortu dutenei baina egiaztatu ez, lanorduetatik kanpo euskara ikasteko azken lizentzia eman ahal izango zaie. C2rako eskaera Deialdi Orokorrean egin daiteke (bigarrena.- 2022-2023 ikasturterako deialdiak)

### **Laugarrena. – Eskaera aurkezteko baldintzak**

Deialdi honetan parte hartu ahal izango dute Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioaren zerbitzura diharduten funtzionarioen kidegoetako langileek, baldin eta:

1. Eskabidea egiteko unean eta ikastaroa hasteko unean ere zerbitzu aktiboan dauden langileak.
2. Eskaera arduradun funtzionalari jakinaraztea, edo haren oniritzia izatea, deialdi honetan hala xedatzen denean.
3. 5 orduko, 2 orduko ala antzeko modulua ikasten ari diren langileak eta modulu aldaketa bat egin nahi edo egin behar duena.
4. Lanpostuaz jabetu badira Deialdi Orokorreko eskaerak aurkezteko epea (2022ko maiatzaren 20tik aurrera) amaituta zegoenean.
5. Deialdi Orokorrean (2022ko maiatzak 11 – 20) edo/eta urriaren hasieran, ikasturte hasiera euskaltegietan, medikuaren baja izan dutenean.
6. Behin betiko zerrendan 1 kodearekin (Izendapenaren iraupena ez da nahikoa) baztertuak izan zirenak.
7. Urrian, ikasturtea hastean, bere mailako talderik topatu ezin izan zutenak.
8. Deialdi Orokorrean baztertuak izan badira, lanorduetan joateko plantillaren %30etik gorako eskaera egon zelako euren organo judizialean. Betiere, une honetan organo judizial horren egoera aldatu baldin bada.

### **Bosgarrena. - Eskaerak**

Eskaera, bulegoko edo organoko arduradunari jakinarazi behar zaio edo haren oniritzia izan behar du deialdi honetan hala xedatzen denean.

Funtzionarioek izena eman duten modulueterako bakarrik izango dute aukera. 2 eta 5 orduko ikastaroak eskatzen badira, 5 orduko ikastaroak izango du lehentasuna, baina ematen ez bazaio, 2 orduko ikastaroaren aukera aztertuko da.

### 1. Eskabideak aurkezteko epea

Eskabideak aurkezteko epea 2022ko **azaroaren 15etik 23ra** bitartekoa izango da, egun biak barne. Data horretatik aurrera ez da eskabide berririk onartuko.

### 2. Eskabidea aurkezteko modua

Ikastaroetan parte hartu nahi dutenek "*euskara-ikastaroetarako eskaera-orria*" (*II. eranskina*) bete beharko dute, eta posta elektronikoko bidez **eskatzailearen arduradun funtzionalari kopian (CC) ipinita** helbide elektronikoko honetara bidali: [euskaradeialdiak@euskadi.eus](mailto:euskaradeialdiak@euskadi.eus)

**Argibideetarako telefono zenbakia: 945 01 91 59**

## Seigarrena. – Eskaintako ikastaroak

Deialdi osagarriko ikastaro-eskaintza ebazpen honen laugarren puntuan jasotako baldintza eta betekizunetara mugatua dago:

- ❖ 2 orduko ikastaroa egiten hastea, 4. puntuan zehazten diren kasuetan.
- ❖ 5 orduko ikastaroa egiten hastea, 4. puntuan zehazten diren kasuetan.
- ❖ 2 orduko ikastarotik 5 ordukora aldatzea.
- ❖ 5 orduko ikastarotik 2 ordukora aldatzea.

Hortaz, deialdi orokorretatik abiatuta hauek dira eskaintzen diren aukerak:

### **6.1. Bi orduko ikastaroak**

2022ko maiatzaren 11ko Deialdi Orokorraren ordutegi eskaintza bera.

### **6.2. Ikastaro trinkoak**

**Leku eskaintza: 28**

2022ko maiatzaren 11ko Deialdi Orokorraren arabera.

Honako honek ezin izango du 5 orduko lauhileko liberazioa izan:

- **Kidegoari dagokion** (derrigortasun-data izan ala ez) **maila/hizkuntza-eskakizuna lortu** (egiaztatua ala ez) duen langilea.
- 2022-23 ikasturtearen **lehen lauhilekoan 5 orduko liberazioa** izan duten langileak.

5 orduko ikastarora alda daiteke honako betekizunak betetzen badira:

- 2022/2023 ikasturteko lehenengo lauhilekoan euskara-ikastaroetan aritu izana eta **aprobetxamendu ona** eduki izana (deialdi orokorreko hamaseigarren puntuko irizpideen arabera).
- Azken 6 hilabeteetan **A2 maila gutxienez** gainditu izana (egiaztatua ala ez).



Eskaera berriak onartuko dira bakarrik honako kasuetan:

- Aurreko ikasturtean, 2021-22, euskara-ikastaroetan aritu izana eta aprobetxamendu ona eduki izana (deialdi orokorreko hamaseigarren puntuko irizpideen arabera), baina Deialdi orokorrean izena eman ez izana, deialdi honen 4. puntuari jasotako egoeren bat gertatu delako.

### **Zazpigarrena. - Euskara ikasteko lizentzia ematen zaien langileen konpromisoak**

Deialdi honetako euskara-ikastaroetan parte hartzen duten funtzionarioek konpromiso hauek hartzen dituzte:

- Ikastaroen asistentzia eta aprobetxamendu egokia egitea.
- Mailak gainditzeko deitutako aldizkako ebaluazioak egitea.
- Hizkuntza-eskakizunak edo baliokideak egiaztatzeak azterketak egitea, dagokien mailara iristen direnean.
- Dagokion organo judizialean euskararen erabilera sustatzeko programetan aktiboki parte hartzea.

### **Zortzigarrena. – Lehentasun irizpideak**

174/2010 Dekretuari jarraituz, Justizia Administrazioako Zuzendaritzak aldiro-aldi deitzen dituen euskara-ikastaroetara nortzuk joango diren erabakitzeak, irizpide hauek erabiliko dira, ondorengo lehentasunaren arabera antolatuta:

- 1) Bereiztutako dotazioa duten langileak eta beren kidegoari dagokion hizkuntza eskakizuna egiaztatu gabe dutenak.
- 2) Lehentasunezko zatitako organo, zerbitzu edo unitateetako langileak, horiek identifikatzen direnean.
- 3) Beren kidegoari dagokion hizkuntza-eskakizunetik hurbilen den euskara-maila duten langileak.
- 4) Euskararen erabilera sustatzeko programetan parte hartzen duten langileak.
- 5) Euskara-maila bera duten eskatzaileen artean, destinoko zentroan antzinasun handiena duen langileak.
- 6) Destinoko zentroan euskara-maila eta antzinasun berbera duten langileen artean, aurreko ekitaldietan eskaintako ikastaroetan aprobetxamendu onena izan duenari emango zaio lehentasuna.
- 7) Aipatutako irizpideak nahiko ez badira, langile gazteenari emango zaio lehentasuna.

### **Bederatzigarrena. – Ikastaroetara joateko baimenak**

Deialdi Orokorrean adierazi zen moduan, gehienez aldi berean organo judizial bereko **plantillaren %30ak** parte hartu ahalko du lanorduetako ikastaroetan, hau da, ikastaroetan urrian hasi zirenez gain deialdi osagarri honen ondorioz hasiko direnak ere kontuan hartuta.

5 orduko lizentziei dagokienez, Deialdi Orokorrean bezala jokatuko da; arduradun funtzionalak, eskabidearen kopia jaso eta behin-behineko zerrendaren aurkako erreklamazio-epea amaitu bitartean, zerbitzu-premiak direla-eta txosten arrazoitu bat aurkeztea barne. Kasu horretan, zuzendaritza horrek indargabetu egin dezake emandako behin-behineko baimena.

### **Hamargarrena. – Mailaketa-probak**

Eskaerak aztertu ondoren, deialdi honen aurreko azken 6 hilabeteetan euskara-eskoletara joan ez diren guztiek euskarazko ezaguera-maila zehazteko mailaketa-proba egin beharko dute. Mailaketa-proba hauetara deitutako langileek ezinbestean aurkeztu beharko dira, euskara inoiz ikasi ez eta 1. urratsean hasteko daudenek izan ezik.

### **Hamaikagarrena. – Taldeen antolaketa**

Deialdi Orokorrean gertatzen zen moduan, HABE Justizia Administrazioko langileekin aurrez aurreko taldeak antolatzen ahaleginduko da honako kasuetan:

1. Goizeko lanorduetako 2 orduko ikastaroak (8:00-10:00) Bilbon, Donostian edo Gasteizen.
2. Ikastaro trinkoak (5h) euskaltegian.

### **Hamabigarrena. – Matrikula-orria**

HABEko talderik sortzen ez bada, Justizia Administrazioko Zuzendaritzak matrikula-orria posta elektronikoz bidaliko dio interesdunari, horrek egin duen eskaerari eta beharrezanei ondoen egokitzen zaion euskaltegia topa dezan, Deialdi Orokorrean jasotakoaren arabera.

### **Hamahirugarrena. - Erreklamazioak**

Deialdi honetan onartu eta baztertu direnen behin-behineko zerrenda argitaratzen denean, arrazoi bat edo beste dela baztertuak izan direnek 10 egun naturaleko epea izango dute, argitaratze-dataren hurrengo egunetik zenbatzen hasita, erreklamazio-idazki bat aurkezteko



Justizia Administrazioiko Zuzendaritzan helbide elektronikoa honen bidez: [euskaradeialdiak@euskadi.eus](mailto:euskaradeialdiak@euskadi.eus) Halaber, lanorduetan egiten diren ikastaroetatik baztertuak geratu direnak, erreklamazioak egiteko epe berean, eskaera berriro egin dezake ikastaroa lanorduetatik kanpo egiteko.

### Hamalaugarrena. - Egutegia

Euskara ikastaroen egutegi orokorra honakoa da:

2 ordu	2023ko otsailak 20 – 2023ko ekainak 23
5 ordu	2. lauhilekoa: 2023ko otsailak 20 - 2023ko ekainak 28

5 orduko ikastaroetara doan ikasleak euskaltegiak erabakitako egutegia jarraitu beharko du zehatz-mehatz, nahiz eta berak lan egiten duen organoan jaieguna izan. Euskaltegian eskolarik ez badago, ikasleak bere lantokira joan beharko du, egun bakar baterako izan arren.

Era berean, 2 orduko ikastaroa egiteko baimena duen ikasle bati beste lizentzia edo baimen bat izateko gertaera sortuko balitzaio, eta lizentzia edo baimen hori euskaltegiko eskola-ordukoen bestekoa edo horien iraupenaren zati batekoa bada, lizentzia edo baimen hori amaitu bezain laster bere lantokira itzuli beharko du lizentzia edo baimen horrek ez hartutako denbora betetzeko ikasle horrek haren ohiko lanaldia amaitu arte.

### Hamabosgarrena. –

Honako hauei dagokienez:

- Ikastaroetara ez joatearen justifikazioa
- Ikastaroen aprobetxamendua
- Ikastaroan berandu hastea
- Ikastaroa behin betiko uztea
- Lantoki aldaketa
- Orduen konpentsazioa
- Ikastaroen finantzaketa
- Ikastaroak aldatzea osasun-gomendioz

Deialdi Orokorrean ezarritakoa beteko da osotasunean.

### II ERANSKINA

Eskaera

### III ERANSKINA

Ikastaroa uztea

